


# ISOLAMENDUA

KALE-LITERATURA ITXIALDIAN

2020/04/18



# ISOLAMENDUA

KALE LITERATURA ITXIALDIAN

2020/04/18

HERNANI

## Porra

- |                          |                               |  |
|--------------------------|-------------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Andoni Tolosa                 | 1. Isolamendua                             |
| <input type="checkbox"/> | Antonio Casado da Rocha       | 2. [Ez dut asko esateko isolamenduaz]      |
| <input type="checkbox"/> | Arantza Etxeberria Agiriano   | 3. Isolamendua. Zer da?                    |
| <input type="checkbox"/> | Damián Pedrosa                | 4. Cookie                                  |
| <input type="checkbox"/> | Ibon Zapiain Leoz             | 5. Asko naiz                               |
| <input type="checkbox"/> | Iñaki Armendariz Illarramendi | 6. [Gauetz heldu zen]                      |
| <input type="checkbox"/> | Izaskun Iturralde             | 7. Inflexioa                               |
| <input type="checkbox"/> | Josu Landa                    | 8. Bideokonferentzia aspaldiko lagunarekin |
| <input type="checkbox"/> | Leire Ibargu                  | 9. [Azkenekoz ikusi nuenean]               |
| <input type="checkbox"/> | Marta Luxán Serrano           | 10. Konfinamenduaren hitz batzuk           |
| <input type="checkbox"/> | MBG eta GEA                   | 11. [Pauso bat zabal...]                   |
| <input type="checkbox"/> | Olatz Dañobeitia Ceballos     | 12. Noiz arte?                             |

## 1. Isolamendua

Itxi gaituzte

Nork? Nork bere kaiola du  
espetxe maite

Zein da kausa? Zer bete?

Nork agindu? Giltzak gu gara

Udaberriak,  
kanpoan loratzen  
isiltasuna

Belardi jaioa prest  
zakurrak du zanpatzen

Kanpoan ez den  
sentimendu galdua  
nork berea du  
berea du bilatzen

bakardade bortitzak,  
hitzak ez,  
bihotzak mimo minez

Diziplinaren  
egitarau zorrotza  
nork?  
nork du?  
nork du beteko?

Bizi arau, nork iraun  
atzo da gaur, etzi zen, etsitzen

Esnatzeak du  
jaikitzeke luzapen  
ez baimendua

Begi nagiak ditu  
eguerdiak  
eguerdiak kendu

Goseak argi,  
nagiak alfer laino,  
jatean izar

Harrikoak burutzen  
Harrikoak burutzen du  
esku terapia

Ez irri soilik  
patio itxietan  
auzo hontza so

Irakurle sutsuak  
hitzak gudari lerro

Nahiz inork ez nahi  
ez da isolamendu  
zuntzezko sare

Antsietateak du  
tripa zuloa hazi

Zer  
Zer jan  
Zer jan banu  
jan banu gaur  
sabela ez da bare  
denbora geldi

Atera ezinak nau  
grinez lotzen atera

lau urtaroen  
oasirik gabeko  
egun mortua

Gaur,  
hogeita bat garren goiza  
dena mendean  
hogeita bat garren mendean  
dena gaitza

Hilak gora non  
ilarrak sasoian lez  
ilgoran bildu

Egunak  
Egunak hogeita lau  
hogeita lau urte  
antza orduak

Telebistari  
sofaren sakonetik  
gerri minez,  
herri minez, fin

Pijama erantzi dut  
ohean  
ohean naiz  
ohean naiz etsiko.

## 2. [Ez dut asko esateko isolamenduaz]

Ez dut asko esateko isolamenduaz

agian

maite ditudala

balkoiak barrurantz

eta

autobide hutsek eragiten duten abandonu susmoa

aipa dezaket

koartada bikaina dela

behin eta birritan huts egindako hitzorduentzat

larrialdietarako entzungailuak jartzeko

autobus-ilaran

edo

bizilagunen bat badago

epe jakinik gabe atzeratzeko

etxera itzultzeko igogailu-txangoa

badakit

zelai bat izan daitekeela igande eguzkitsu batean

ekaitza lehertu

eta jendea lasterka babes bila hasten denean

zaratatsu

algaraka

pozik

hein handi batean

ziur nago

ez duela iraungitzen bakarrik egoteko gogoak

baina

ez dakit nola adierazi

ito egiten nauela zabaltasunak

ikusezinago izateko teknika perfektzionatzen ari naiz

badaezpada

### 3. Isolamendua. Zer da?

*Irrati esatariak “Isolamendua. Zer da?” galdetu dio, eta preso egondakoa mutu geratu da.*

Isolamendua, bota gabeko oihu gehiegi dira.  
Isolamendua, eman gabeko kolpe gehiegi dira.  
Isolamendua, gordetako malko gehiegi dira.  
Isolamendua, amaitu gabeko solasaldiak dira.  
Isolamendua, esan ezin diren gauzen mundua da.

Isolamendua, afektuen desertua da.  
Isolamendua, jaso gabeko laztanen zauriak dira.  
Isolamendua, lehortu diren ezpainak dira.  
Isolamendua, laztu diren esku ahurrak dira.  
Isolamendua, barrura begiratzen duten begiak dira.  
Isolamendua, iraganeko ipuniak soilik entzuten dituzten belarriak dira.  
Isolamendua, alu dorpeak dira.

Isolamendua, erlojuaren neurria aldatzen duen etxea da. Tik-tak-a  
laburtzen den tokia.  
Isolamendua, oin pausoen distantzia luzatzen duen poxpolo kutxa da.

Isolamendua, Anariren galdera ikur amuan eskegita bizitzea da.

Isolamendua, zeure burua bilin-balaunka noranahira  
bota nahi izatea da.

Isolamendua, kokobola bihurtzea da, Sarri-ren *Harri izan nahi dut* horren saiakera mediokrean.

Isolamendua, erantzunik ez duten galderari, segunduro, erantzun ezberdina ematea da. Kabalak eta kabalak egitea, ehundaka ajedrez partida jolastea. Jokalaria eta bere arerioa izatea aldi berean, jokalaria, arerioa eta begiralea. Jokalaria, arerioa, begiralea eta epailea.

Isolamendua, eguzki gabeko erresuman argi izpien bila aritzea da.

Isolamendua, zer den? **Hi, Sola** hago, hau atarramendua.

*“Esatariari 10 segunduko isiltasuna jasangaitza zaionez, hurrengo galderara salto egitea deliberatu du”. Agian orain, isiltasun hori zertxobait entzuteko gai gara. Baliteke, beharbada, auskalo...oxala!*

## 4. Cookie

Isolamendu honetatik  
aterako bagara ere  
nor izango ote da  
nire pausuen jabe?

gorde zait  
webgune baten eta beste baten  
tarteko unean  
munduko beste puntan  
dagoen bileran  
mosaiko honen jarduerak  
dagien norbera

ta geroak zer dakarren  
inortxok ez daki larri  
denbora luzatzen doa  
oraingoaren aldarri.



## 5. Asko naiz

*“I am large, I contain multitudes”*

*“Asko naiz, multitudeak nigan”*

WALT WHITMAN

Birusa zer ote den galdezka, gerra, sute ala ‘bitxo’?  
“Berri-txarra da proteinaz bildurik”, zientziaren esanak dixo.  
Lili totori *parbobirusak*, okada, min (e)ta tristura  
Hilzoriko errege-oparia, urteko lehen kalentura.

Otsailan hotsak urruti dentzut, beste birusa Txinatik,  
Erre-ne-a kopiatuz-ugalduz, korona jantzi-erantzi...

Kurbak, esponentzialak, zenbaki... hildakoen uholde latza  
txerto, botika, maskara, makinak... omen orain esperantza  
pobreak, gosea, erte, bortxak... kalean da polizia  
kamera ostean egin arnasa, martxoko iraultza gorria

Aittaittamama silloi berdetan, erakutsi dit whatsappak  
tutean egin ta afaldu ostean, utzita taka-takasak.

Filosofiaren galdera izan, bizirik ote birusa?  
--Bizidun eta autonomo diren ala molekula hutsak--.  
Ezetz diote argudiatuz bakarrik gauza ez dela,  
zelulan sartuz, ehunak betez, dute dependentzia itzela.

Besteen beharra izatea bada haren *top* ezaugarria,  
Inter-ekintza estrategia badu, nolatan ez da bizia?

Apirileko berri(e)tan ager, zauritu ta zaurgarriak  
Giza bizitza frenetikoaren emaitza penagarriak  
Bizia sare endredatua, dena korapilaturik  
Hain ez-ohiko den planeta Lurraren erritmoa auto-eraturik

Berri-txar izanik gaitz ankerra --eta konfinamendua--,  
Izaki ttattar honek badu, bai, eboluzioan meritua

Aldaketak etengabe sortuz, eta gorputza berriak,  
Biomak eta biroide multzoak izanik bizigarriak  
sendagaiaren bektore tekno, osasuna da kimera..  
Maiatza ikusiko ote dugu, alaia eta ederra

Asko naiz ni, ez egin “mate”, loturak Mundu- egile  
(Mikro-bio)-sozio-politika, nor garen? Lurreko kide...

La la la...

## 6. [Gauetz heldu zen]

Gauetz heldu zen, ixil-ixilik eta geratzeko asmoz. Politikoen hitzen eta polizien eskutik iritsi zitzaigun, eta, berarekin batera, gutako asko zelatari bihurtu. Babes neurria zena, guda hiztegiz armatuta, beldurra zabaldu zuen. Eta, gauero, jendea balkoietan txaloka.

Gauetz heldu zen eta gure etxeak lantegi, bulego eta ikasgela bilakatu zituen. Ondokoak ukitzeko debekua ezarri ziguten, lagunak kalean besarkatzea ariketa arriskutsua izateraino: erresistentzia keinua edo osasun publikoaren aurkako delitua, horra hor eztabaida.

Gauetz heldu zen eta ez dakigu (i)noiz amaituko den. Isolamendu garaian bizi garenetik, txakurrak alokatzen dira, jaiotzen diren umeei Korona-lokalizazio-txipa txertatzen zaie eta laguneren zerrenda sei hilabetez behin berriztu dezakegu. Balkoietan, *dena ongi atarako da* jartzen ez dituzten pankartak zabaltzea debekatu digute.

Gauetz heldu zen. Egun batetik bestera tortura tresna zena babes neurria mudatu, eta, harrezkero, pantailei, telelanari eta etxeko balkoiri (g)iltzatuta bizi naiz.

## 7. Inflexioa

Etxeak beterik,  
kaleak hutsik.  
Funtsezko jarduerak,  
funtsezkoak ez diren jarduerak.  
Bizilagun jatorrak,  
jatorrak ez diren bizilagunak.  
Gustoko artea,  
gustokoa ez dudana artea.  
Lagun onak,  
etsai arriskutsuak.  
Txoriak,  
loreak,  
hodeiak,  
estatistikak,  
kutsadura jaitsiera,  
maskarilak,  
eskularruak,  
protokoloak,  
ama,  
anai arrebak,  
hilobak,  
txaloak,  
zartaginen hotsak,  
bideo konferentziak,  
Haurrak.  
Faxista zaharrak,  
zahar duinak.  
Funtzionario faxistak,  
funtzionario duinak.

Autonomo faxistak,	Bat.
autonomo duinak.	...
Medikuak,	Inflexioa,
prostitutak,	kolapsoaren bidean.
kazetariak,	...
etxegabeak,	...
irakasleak,	Bi.
drogazaleak,	...
politikariak,	...
paperik gabeko klandestinoak,	Inflexioa,
bankariak,	kolapsoaren bidean.
ikasleak,	...
petrolio jabeak,	...
eroak,	...
poliziak,	Hiru.
nekezariak,	...
kartzela zaindariak,	...
elbarri fisikoak,	...
militarrak,	Inflexioa.
txinatarrak,	
Berlinen bizi direnak,	
herri maiak,	
Algerren bizi direnak,	
...	
inflexioa,	
kolapsoaren bidean.	
...	

## 8. Bideokonferentzia aspaldiko lagunarekin

Urte asko dituk  
hiru hamarkada pasa ere bai  
hil egin hintzela

azkeneko aldian ouija bat antolatu genian  
psikofonia artean  
gogoratzen haiz?  
bai edo ez  
erantzuteko aukera  
baizik ez nian utzi  
edota letraz letra gauzak esaten  
eta oso motela izan zuan kontua  
motelegia

orain  
etxean konfinatuta gaudek  
eta bideokonferentziak egiten ikasi diat  
horregatik konbokatu haut jitsi-ra

bai  
bai  
konfinatuta gaudek  
gobernuak hala erabaki duelako  
militarrak eta poliziak dituk kalearen jabe  
eta  
okerrena  
ezker abertzalea ere  
polizien alde zagok  
berdin uniformedunak uniformegabeak edo espontaneoak  
polizien alde

baina denbora mugatua diagu bideokonferentzia honetan  
eta antola gaitezen  
aurrena albiste txarrak emango dizkiat  
eta gero onak

lehen albiste txarra eman diat jadanik  
jendarte gero eta autoritarioagoan bizi gaituk  
aberatsak gero eta aberatsago  
eta beraz badakik besteok nola

agian jakingo huen badirela urte batzuk  
ETA desagertua dela  
baina hogeitaz dozentatik gora preso politiko  
oraindik usteltzen zeudek kartzeletan  
haien konfinamendua zer izan daitekeen ere  
internetik gabe  
ordenagailurik gabe  
imajinatu ezinean gabiltzak gu

hau seguru badakiala  
*Egunkaria* itxi zitean

handik urte askotara denak absolbitu zitiztean  
baina bidean bi hildako  
hamar bat torturatu larri  
mordoxka bat hilabete kartzela  
eta psikiatrei egindako bisita ugari

konfinamendu honetan  
modako hitza bihurtu duk osasuna  
eta Osasuna futbol talde baten izena ere baduk  
eta bazagok beste futbol talde bat  
Real Sociedad izena daukana  
Real  
bai  
Real  
eta jakin ezak horko direktiban ere  
ezker abertzalekoak badaudela  
armak ekoitzi eta saltzeari esker  
aberatsa den pertsona bat klubeko presidente  
*Diario Vascoren* konplizitatearekin  
behin baino gehiagotan eskaini zizkidatek  
Anoetako estadioko palkora joateko sarrerak  
kanapeak eta gin-tonicak debalde hartzera

baina albiste onak ere badituk noski nola ez  
astelehenak kenduta euskarazko egunkari batekin gosaltzen diat  
egunero  
eta horko letra inprimatuen lerroartearen artetik  
zenbaitetan hire irribarre pikaroa agertzen zaidak  
bibote zikin baina maitagarri horrekin  
eta hire ezkerreko begiak keinu egiten zidak  
aitormen pozgarri bat egingo diat  
horko eta *Argiako* testuak irakurtzeari esker  
gero eta pertsona hobea naizela sentitzen diat



eta gure adiskide extremaduratar jatorrikoa berriz aita izan duk  
hirurogeita lau urterekin  
eta gure beste adiskide egiatarra Hondarribiko kanpinean  
bizi duk oraindik bizitzaz gozatzen  
eta gure beste adiskide aginarra ez duk oraindik hil  
nahiz eta duela hogei urte desahuziatu zuten

joder  
ikusiko bahu nolako indarrean ari diren feministak  
asko ikasi diat azken urteotan haiei esker  
aportazio ideologikoen abanguardian zeudek  
hemen orain  
nirekin batera egongo bahintz  
hire irribarre inmentso hori are inmentsoagoa izango lukek

luze zoak hau  
lagun  
bideokonferentzia honek denbora muga zian  
5 minutu  
eta  
4 minutu eta 40 segundotan gauden honetan  
musu umel eta amultsua  
hire kopetan  
birusez beteta dagoela beti eman izan duen hire kopetan  
badakik zenbat maite haudan  
deituko diat berriz

## 9. [Azkenekoz ikusi nuenean]

Azkenekoz ikusi nuenean  
eztul zatar bat zeukan  
baina lanean ari zan  
geroztik  
hainbat aldiz joanaz goizez edo arratsaldez  
mandatuak egitera saltoki horretara  
baina ez dut berarekin topo egin  
apalak generoz betetzen edo zer falta zan apuntatzen ibiltzen zen  
eta nere gauzak arin egiteko estiloaz galdetzen nion  
—nik beti euskeraz—  
non dekozue hau?  
eta beste hori?  
berak egiten ari zana utzi  
eta oso atsegin  
bere euskera apurrean baina saiatuan erantzun  
laster joan beharko naz berriro  
errekauek egitera eta  
gustatuko litzaidake jakitie  
zer gertatu zaion  
edo non dabilen  
baina nola egingo dut hori?  
hainbat galdera tartien  
ez badiot inoiz  
izena galdetu.

## 10. Konfinamenduaren hitz batzuk

Martxo erdialden, 13an,  
Hasita isolamendu

Debeku asko, ezarri eta  
Gauza oso gutxi baimendu

Esan ziguten, distantzi hori  
Denentzako salbamendu

Baina nago ni, hau guztia ez  
Ote den esperimendu

Esan ziguten, distantzi hori  
Denentzako salbamendu

Baina nago ni, ari direla  
Berritzen ordenamendu.

Lehenengo asteetan, lasaitasunez,  
Moldatu ta baita alaitu

Sozializazio beharra askok  
Gaietik kendu egin baitu

Baina halere, besteen beharrak  
Han eta hemen gaitu blaitu

Zoom, jitsi, hangouts, eta pantailak,  
Ahal bagintu adiskidetu

Baina halere, besteen beharrak,  
Han eta hemen gaitu blaitu

Eta alkoholari, eman diogu,  
Baina horrek elkartu ez gaitu.

\* \* \*

\* \* \*

Batzuk etxeetan, lanean gaude  
Batzuk kalera derrigor

Baina beste askok, dirua lortzeko  
Ez du aurkitzen bidezidor

Ta arratsaldero, mediku-erizain,  
Omentzeko txalo gogor

Baina zaintzaile, ta garbitzaile  
Beharrei itsu eta gor

Ta arratsaldero, mediku-erizain,  
Omentzeko txalo gogor

Balkoi berdintsu, horietatik e(re)  
Mesfidantza liteke igor

\* \* \*

Ta honezkero, etxean kezkek  
Batzuk gaituzte harrapatu

Probestu eta, polizi, espaini,  
Ta kontrola gorai patu

Ta esango dute, besterik ez da  
Hau da orain gure patu

Osasuna da, askoren jainko,  
Ta horren alde ez lau katu

Ta esango dute, besterik ez da,  
Hau da orain gure patu

Ta etxean sartuta, asmatu behar  
Hau oin nola borrokatu.

\* \* \*

Martxo erdialden, 13an,  
Hasita isolamendu

Debeku asko, ezarri eta  
Gauza oso gutxi baimendu

Esan ziguten, distantzi hori  
Denentzako salbamendu

Baina nago ni, hau guztia ez  
Ote den esperimendu

Esan ziguten, distantzi hori  
Denentzako salbamendu

Baina nago ni, ari direla  
Berritzen ordenamendu.

## 11. [Pauso bat zabal...]

Pauso bat zabal eta hiru pauso luzeko gelaxkan, edo kristal lodi eta zikin baten bestaldetik, Paris eta Madrilen bixitatzen nituen lagunek kontatzen zizkidaten beraien errutinak; patioetako bueltak, gimnasioko ikastarakoak, makramea, soldadura, kideen arteko elkarbizitza, eta erlojuaren agindupeko senide nahiz lagun bixitak. Eta orduan, begiak zabal zabalik, imajinatzeraz ausartzen nintzen lokutorioz bestaldeko bizitzan zer egiten zuten.

Sei gela, garaje handi bat, lau komun, jardina, patioa, sukaldea eta egongela dituen etxe batean zazpi lagun konfinatu gaituzte Paris eta Madriletik iritsi diren aginduek. Errutina bihurtu zaizkigu garajeko korrika saioak, step eta kardioa, yoga, telelana, pintura, etxekideekin elkarbizitza eta teledeiak senide nahiz lagunekin. Eta orain, begiak itxita ere, ezin dut imajinatu lokutorioz bestaldeko bizitzan zer sentitzen duten.

## 12. Noiz arte?

Mundua zabala da eta ni barruan,  
bizitzak elkartruke eta animalia guztien  
mugimenduan bizirauten du eta aberasten da.

Gu bitartean isolatuta pareta mugiezinetan  
aldaketa kosmikoekin elikatuta,  
bakarrik “*denbora eta izana*”, Heideggeren hitzetan,  
edo “*izana eta ezereza*”, Sartreren aipamenean.  
Sustraira bueltatuz, berriro berpizteko?  
Baina, ziega batean kokatuta, noiz?  
Edo etxeko paretetan estututa, zer modutan?

Loreak eguzkiarekin hazten eta irekitzen dira,  
gu senideekin eta lagunekin;  
aldi berean, lurra loreentzako sustraia  
guretzako elikadura, orain kutsatuta.  
Lagungarria izateko jarraitzen, noiz arte?

irakurraldiaren audioa  
entzuteko:



<https://www.dropbox.com/s/765m939qig8utfh/Isolamendua05.mp3?dl=0>

### Porraren soluzioa:

1. Ibon Zapiain Leoz
2. Andoni Tolosa
3. Olatz Dañobetia Ceballos
4. Antonio Casado da Rocha
5. Arantza Etxeberria Aguiriano
6. Marta Luxán Serrano
7. Inaki Armendariz Illarramendi
8. Josu Landa
9. Izaskun Iturralde
10. MBG eta GEA
11. Leire Ibargu
12. Damían Pedrosa

estu hauek  
ernanin irakurri  
eta entzun ziren  
zazpi etxebizitzatan  
2020ko apirilaren 18an  
*Isolamendua* izeneko  
ekitaldian

